

LABURPEN EXEKUTIBOA
ORKESTRAKO KOADERNOAK

ISSN 2340-7638

4/2021

EUSKADIKO EKONOMIA ETA GIZARTE DIGITALAK. DESI 2020

Agustín Zubillaga Rego
Carla Peletier Espiga

2021

Laburpen exekutiboa. Orkestrako Koadernoak, 4/2021 zk.

Azterketa honetan hainbat lantaldek eta pertsonak hartu dute parte. Lehenengo, Eusko Jaurlaritzako SPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentziaren laguntza eskertu nahi dugu. Informazioa biltzeko lanetan, laguntza eman digute Eusko Jaurlaritzako Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitaletako Zuzendaritzak, EJIE-Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarateak, Bizkaiko Foru Aldundiak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Bilboko Udalak, Donostiako Udalak, Gasteizko Udalak, Irungo Udalak, Barakaldoko Udalak, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak eta Osakidetzak. Era berean, SPRIk emaitzak alderatzen lagundu digu. Azterketa hau egitea ezinezkoa izango litzateke Euskal Estatistika Erakundearen (EUSTAT) laguntza apartarik gabe. Aurten ere, balio handikoa gertatu zaigu Europako Batzordeko Balazs Zorenyirekin elkarlana. Era berean, pertsona hauen ekarpenak nabarmendu nahi ditugu: Asier Perillos (Deustuko Unibertsitatea), Alex Etxeberria (EJIE), Natalia Maeso (Gartner), Julian Ruiz (CECOBI), Fran Aspiazu, Gonzalo Salcedo eta Edurne Errasti (CEBEK), Patxi Sasigain (ADEGI) eta Eusko Jaurlaritza.

Egileak

Laburpen exekutiboa

Ekonomia eta Gizarte Digitalari buruzko txosten honek, DESI-Ekonomia eta Gizarte Digitalaren Europako indizeaz baliatuz, Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomiaren eta gizartearen digitalizazioa du aztergai 2019rako, alegia, COVID-19aren pandemiaren aurretik. Orokorrean, EAE zazpigarren tokian dago EB-28ko estatu kide guztien sailkapenean. Hain zuzen ere, Europako batezbestekoak baino ia 10 puntu portzentual gehiago ditu eta Espainiako batezbestekoak baino 4 puntu gehiago. Europako alderaketa horretan, EAE Finlandia, Suedia edo Danimarkaren atzetik dago, eta beste herrialde garrantzitsu batzuen aurretik, esate baterako, Alemania, Frantzia edo Austria.

Indizea osatzen duten bost dimentsioetako bakoitza bere aldetik aztertuta, honakoa azpimarratu dezakegu:

1. EAE hirugarren tokian dago **Konektagarritasunean** liderrak diren herrialdeen sailkapenean, nagusiki banda zabal finkoaren ezarpen eta estalduran dituen emaitza onei esker. Dimentsio horretan, indizearen balioak hobera egin du, baina aurreko urtean baino gutxiago.
2. **Giza kapitalaren** dimentsioan, EAE zortzigarren tokian dago. Nabarmenezkoa da hazkundera iazkoa baino handiagoa izan dela. Tresna digitalen erabilerara bideratutako gaitasunetan, emaitza tartekoa da; IKTetako prestakuntza eta espezializazioan, ordea, emaitzak Europako batezbestekoaren gainetik daude.
3. EAEko **etxeetan, Interneteko zerbitzuen erabilera** oraindik ere txikia da, bereziki erosketa eta salmenta elektronikoetan. Nolanahi ere, aurreko urteetan baino hazkunde bizkorragoa izan du aldagai honek.
4. **Enpresetan teknologia digitala** zein neurritan dagoen integratuta aztertuta, EAE zazpigarren tokian dago. Baina, oraingoan, hazkundera aurreko urtekoa baino txikiagoa izan da, nabarmen, gainera. Orokorrean, euskal enpresen digitalizazio maila handia bada ere, enpresa txiki eta ertainen merkataritza elektronikoa ez da Europako batezbesteko mailara iristen.
5. **Zerbitzu publiko digitalei** dagokienez, EAEk iaz baino hazkunde handiagoa izan du eta seigarren tokian dago orain. Zerbitzuen digitalizazioan, EB-28ko batezbestekoaren gainetik dago eta datu irekietan, nabarmen egin du hobera.

EAEk, beraz, maila ona erakusten du Europako beste herrialde batzuekin alderatuta. Toki oso onean dago ahalmen handiko sare finkoaren estalduran, IKTetako gradudunen kopuruan, enpresen arteko informazioaren truke elektronikoan eta enpresetako gizarte sareen erabileran. Lorpen horietan lagundu dute politika digitalek, horien artean, eta bereziki, Euskadi 2020 Agenda Digitalak. Agenda hori maila askotako beste erakunde politikek osatu dute, bereziki, foru aldundietakoek.

Azken batean, EAEren digitalizazioaren oinarriak sendoak dira eta gero eta irmoagoak. Hala ere, Europako herrialdeak urtez urte aurrera egiten ari direnez, ezinbestekoa da hobetzen jarraitzea. Ildo horretatik, EAEko digitalizazioaren hurrengo etapei begira, aurrera egiteko tarte badago, bereziki, gaitasun digitalen garapenean eta etxeetan interneteko zerbitzuen erabileran.



Orkestra

LEHIAKORTASUNERAKO
EUSKAL INSTITUTUA
DEUSTO FUNDAZIOA

www.orquestra.deusto.es